

## ISAD(G) deskribapen proposamena, funts mailan

### 1. Identitate aipamenaren atala

#### 1.1. Erreferentzia kodea:

#### 1.2. Izenburua:

Donostiako Merkataritza Eskola zaharraren funtsa

#### 1.3. Datak:

1915-1977

#### 1.4. Deskribapen maila:

Funtsa

#### 1.5. Luzera eta euskarria:

XXX m lineal apalategietan

### 2. Inguruabarren atala

#### 2.1. Egilea/ekoizlea:

Indarrean egon zen aldi hainbat alditan aldatu zituen antolamendua, mendekotasuna eta izena:

- Donostiako Merkataritzako Peritu Eskola (1915-1923)
- Merkataritzako Lanbide Eskola (1923-1972)
- Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola (1972-1977)

#### 2.2. Erakundearen historia:

Gipuzkoako Aldundiak izan zuen **Donostiako Merkataritzako Peritu Eskola** sortzeko ideia. 1914ko urtarrilaren 15ean, zenbait diputatu probintziales idazki bat igorri zioten udalbatzari, honakoa eskatzeko: Probintziako Batzordeari azterlan bat egiteko agintzea –Donostiako Udalarekin ados–, Donostian merkataritza eta nautika eskola bat ezartzeko moduari eta formari buruz. Kasuan kasuko udalbatzek gobernuarekin egin beharreko izapideak eta zentroaren egoitza izan zitekeena aztertzeko eskaera zen.

Idazkia aho batez onartuta, Aldundiak erabakiaren berri eman zion Donostiako Udalari, aipatu asmoa gauzatzeari bide emanaz.

Aurrez aurre bildu ziren bi erakundeak eta, abuztuaren 3an, Udalak Aldundiari erantzun zion: interesa zuen Donostian merkataritza eta nautika eskola bat kokatzeko. Aldi berean, alkatea eta bi zinegotzi izendatu ziren, egin asmo zen ikastetxeari buruzko izapideak diputatu arduradunekin egiteko. Bi erakundeek merkataritza eta nautika eskola egin nahi zuten, alegia, molde tradizionalako eskola. Alabaina, laburtu nahi izateagatik-edo, udalari egindako komunikazioa

oinarritzen zen uztailaren 6ko Probintzia Batzordearen erabakian merkataritza eskola baizik ez da aipatzen.

Udalak oinarriak harmonizatzeko bidalitako erantzuna jasota, Aldundiak, Probintzia Batzordean, egin asmo zegoen eskolaren premiak Udalarekin erdi bana asetzeko konpromisoa hartu zuen, indarreko aurrekontuaren kontura.

1914ko irailaren 1ean, Gipuzkoako Aldundiaren presidenteak eta Donostiako alkateak instantzia bat igorri zioten Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako ministroari, Donostian merkataritza eskola bat premiaz sortzeko eskatuta, urriaren 1 horretan bertan hasiera eman ahal izateko ikasturte akademikoari.

Auzia oso modu aktiboan jarraituta, aurrez aurre, postaz eta telegrama bidez, Francisco Bergamín ministroak hitzeman zuen, izapidetzen ari zen eta berehala argitaratzekoa zen merkataritzako ikasketen erreformarekin, eskola sortuko zela. Ministroaren promesarekin bat, **1915eko** apirilaren 16ko Errege Dekretua onartu zen, merkataritzako ikasketen erreformarena, eta, lehen aldiz, merkataritzako intendentearen titulua sartu zen ekonomia ikasketa espezializatuen gradu goren gisa.

Lege xedapen horren ondorioz, hainbat izapide eta lan egin ziren, enpresa irakaskuntzaren abiarazpena prestatzeko. Hala, 1915eko urriaren 1ean, Donostiako Merkataritza Eskolaren ikasturtea inauguratu zen.

Donostiako Merkataritzako Peritu Eskolak prestakuntzako eta oinarritzko graduko irakaskuntzak eskaintzen hasi zen. Horiek gaindituta, merkataritzako perituaren titulua eskuratzen zen. Donostiako Merkataritza Eskola, ondore guztietarako, Valladolideko Unibertsitatearen Errektoregoaren mende zegoen akademikoki.

Donostiako Merkataritzako Peritu Eskola jardunean jarri ahal izan zen egoitza Arte eta Ofizioen Eskolaren beheko solairuan kokatu ahal izan zelako behin-behinean (gaur egun Posta eta Telegrafoen zerbitzua dagoen eraikinean, Urdaneta kaleko 5 zenbakian), 1915eko irailaren 9an.

Eskolaren hasierako arrakasta ikusita –ikasle gipuzkoarren matrikula kopuru handia–, agerian geratu zen behin-behineko egoitzak muga eta gabetasun asko zituela. Irakaskuntzarako lokal gutxi zegoenez, zentroak bere instalazioak handitzeko eskatu behar izan zuen, behinik behin, azterketak egin ahal izateko. Udalak behin-behineko konponbidea eman zuen. Alabaina, lokalaren eskastasuna gero eta larriagoa zen, eta behin-behineko izaerak berak egoera okertu besterik ez zuen egiten. Hala, Merkataritza Eskolak askotan jo zuen Aldundiarengana, kokapena aldatu eta espazio arazoak behin betiko konpontzeko.

Azkenean, 1917ko urriaren 1ean, Merkataritzako Peritu Eskola epaitegi ohira lekualdatu zen (Eskolen plazara, egun Sarriegi plaza denera).

**Merkataritzako Lanbide Eskola (1923-1972).** 1923an, merkataritza irakasleen ikasketek ez zuten unibertsitate izaerarik. 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorrarekin, eta hura garatu zuen arauekin (1972ko maiatzaren 10eko Dekretua), Merkataritzako Irakaslearen gradua ematen zuten merkataritza eskolak unibertsitatearen barne geratu ziren.

**1923ko** uztailaren 6ko Errege Dekretuaren bitartez, Gipuzkoako Aldundiak eta Donostiako Udalak eskatu bezala, Donostiako Merkataritzako Peritu Eskola lanbide eskolaren kategoriara igo zen. Hala, eskolak aurrerantzean peritu mailako eta merkataritzako irakasleen ikasketak eskain zitzakeen.

Donostiako Merkataritza Eskola, 1917an, epaitegiaren eraikin zaharrean kokatu zen, Eskolen plazan (egun, Sarriegi plaza). Eskola kategoriaz aldatu arren 1923an, ez zen kokapena aldatu. Merkataritzako eskolaren lokalak atontzeko, epaitegi zaharreko aretoak egokitu egin behar izan ziren justizia administrazioaren beharrez oso bestelakoetara, irakaskuntzara bideratzeko. Hala, eraikina zaharra zenez, eta irakaskuntzarako ezegokia, eskolaren zuzendaritzak berehala ekin zion Udalaren aurrean erreklamazioak aurkezteari, arazooi konponbidea berehala ematearen premia nabarmenduz.

Erreklamazio horiek arrakasta izan zuten; 1930-31 ikasturtean, Merkataritza Eskola Mandasko dukearen pasealekura lekualdatu zen. Zehazki, Atotxako Eskola Talde Berriaren iparraldeko pabilioira. Eskolak sei urte egin zituen egoitza horretan, 1936-37 ikasturtearen lehen hiruhilekora arte. Espainian, 1936ko uztailaren 18an, gerra hasi zenez, agintari militarrek eskola eraikin osoa ospitale militar bihurtzea erabaki zuten. Hala, 1936ko Eguberrietako oporraldiaren ostean, Merkataritza Eskola berriz ere Urdaneta kaleko Arte eta Ofizioen Eskola ohiaren eraikinera lekualdatu zen. Merkataritzako perituaren ikasketak eraikin horretan eman ziren aurrerakoan. Alabaina, gradu profesionalaren ikasketak etenda geratu ziren, gerraren erruz.

Urteak igaro ahala, irakaskuntza jardueren garapenak eta ikasle kopuruaren gorakada nabarmenak zirela eta, Merkataritza Eskolaren lokalak ez ziren gauza behar berriei erantzuteko. Ikasle kopuruak gorakada ikusgarriarekin jarraitu zuen arren, 1944ra itxaron behar izan zen Udalak, 1.947 ikasle matrikulatu (ofizial eta libre) zeudela eta eraikinaren saturazio maila izugarria zela ikusita, Arte eta Ofizioen Eskola ohiaren bigarren solairu osoa eta lehen solairuko erdiko zatia esleitzeko Merkataritza Eskolari.

1950eko hamarkadaren amaieran, eraikin sorta bat eraiki zen, irakaskuntzarako. Pio XII.aren plazaren ondoan eraiki ziren, Amara auzoan. Hiru eraikin ziren: lehena, Industriako Perituen Eskola eta Institutu Politeknikoa; bigarrena, José M. Usandizaga Institutu Femeninoa; eta hirugarrena, Merkataritza Eskola. Azken hori Institutu Femeninoaren atzealdean zegoen, José M. Olazabal kalean (egun, Bizkaia pasealekua). Kokapen hori izan zuen Merkataritza Eskolak, harik eta 1994an Ibaetako campusera lekualdatu zen arte.

**Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola.** Hezkuntzaren eta hezkuntza erreformaren finantzaketaren abuztuaren 4ko 14/1970 Lege Orokorraren bidez, nabarmen berrantolatu ziren irakaskuntzak Espainian. Arau horretan oinarrituta, maiatzaren 10eko 1378/1972 Dekretuaren bitartez, unibertsitatearen barnean geratu ziren merkataritzako irakaslearen gradua eskaintzen zuten merkataritza eskolak. Hala, zentrook enpresa ikasketen unibertsitate eskolak izatera igaro ziren.

Beraz, ikastetxe donostiarra Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola bihurtu zen. Donostian zuen egoitza, baina Valladolideko Unibertsitatearen mende zegoen (unibertsitate barruti horrek barnean hartzen zuen Gipuzkoa). Gerora, 1977an, eskolaren atxikipena aldatu zen, eta Bilboko Unibertsitatearen barnean geratu zen (1977ko irailaren 23ko Dekretua, Estatuko Aldizkari Ofizialean urriaren 3an argitaratua eta urriaren 6ko ministro aginduz osatua, zeinaren bidez Bilboko Unibertsitatearen mendeko lurraldea Arabara eta Gipuzkoara hedatu baitzen). Aipatu unibertsitateak, 1980ko otsailaren 25etik aurrera, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) izena hartu zuen.

Zentroak berregituratzeko prozesu horren ondorioz, 2016ko urtarrilaren 5etik aurrera, eskolaren ikasketak Ekonomia eta Enpresa Fakultatean sartuta daude (Bilbon du egoitza).

### **2.3. Historia artxibistikoa:**

Martxan egon den urte horietan guztietan eskolak egoitza bat baino gehiago izan du; hala, dokumentazioa hainbat fitxategitan egon da. Eraikin berrian artxibo gordailu txiki bat dago, baina ez da bertan gordetzen dokumentazio guztia.

### **2.4. Eskuratze edo eskualdatze iturria:**

Funts itxia

## **3. Eduki eta egitura atala**

### **3.1. Helmena eta edukia:**

Donostiako Enpresa Ikasketen Eskola zaharreko dokumentu funtsak barnean hartzen du sortu zenetik Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola bihurtu zeneraino gorde den dokumentazio guztia. Eskola hori Bilboko Unibertsitatearen (gerora, UPV/EHU) mende geratu zen 1977an.

### **Edukiaren deskribapen orokorra:**

- Azterketen aktak, 1915-1916 ikasturtetik aurrerakoak.
- Gutunak. Sarrerak eta irteerak, 1915-1916 ikasturtetik aurrerakoak.
- Donostiako Merkataritzako Peritu Eskolaren liburutegiko obren katalogoa, 1916.
- Deialdiak eta abisuak, 1956tik 1961era artekoak eta 1970etik 1974ra artekoak.
- Matrikula eta azterketa eskubideak, 1969tik 1983ra artekoak.
- Estatistikak, 1940-1941 ikasturtetik aurrerakoak.

- Irakasleen espediente indibidualak, 1915etik aurrerakoak (878 kutxa; 26.475 espediente).
- Irakasleen espediente indibidualak.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileen espediente indibidualak.
- Komunikazioen liburu kopiatzailea, 1. zk., 1915eko abuztuaren 11tik 1922ko urriaren 10era artekoa.
- Gutuneriaren liburu kopiatzailea, 2. zk., 1922ko urriaren 10etik 1923ko abenduaren 3ra artekoa.
- Gutuneriaren liburu kopiatzailea, 3. zk., 1923ko abenduaren 3tik 1926ko ekainaren 30era artekoa.
- Gutuneriaren liburu kopiatzailea, 1926ko ekainaren 30etik 1929ko azaroaren 13ra artekoa.
- Gutuneriaren liburu kopiatzailea, 1933ko apirilaren 19tik 1934ko abenduaren 31ra artekoa.
- Familia laguntzako batzordearen akten liburuak.
- Batzorde ekonomikoaren akten liburuak, 1915eko azaroaren 30ean izapidetua.
- Klaustroaren akten liburua, 1937ko maiatzaren 14tik 1956ko maiatzaren 19ra artekoak.
- Klaustroaren akten liburua, 1956ko irailaren 26tik aurrerakoak.
- Beken liburua, 1959 eta 1960.
- Diru kutxaren liburua, 1925eko abenduaren 31tik 1928ko abenduaren 31ra artekoa.
- Kobrantzen liburua (matrikulak, praktikak, eskola karneta, eskola kalifikazioen liburua, tasa parafiskalak; 1972tik 1976ra artekoak).
- Baliozkotzeen liburua (eskubideak eskudirutan), 1949tik 1954ra artekoa.
- Sinaduren liburua, 1945 eta 1946, 1949ra arte.
- Irakaskuntzako, bulegoko eta material zientifikoko gaikuntza liburua, 1928tik 1939ra artekoa.
- Matrikula, azterketa, espediente, ziurtagiri eta titulu eskubideen ondoriozko diru sarreren liburua, 1915eko irailaren 12tik 1937ra artekoa.
- Materialen eta altzarien inbentario liburua, 1916ko ekainaren 16tik 1925eko otsailera artekoa.
- Orotariko materialen inbentarioen liburua, 1. zk., 1915etik 1925era artekoa.
- Langileen matrikula liburua (Gizarte Segurantzaren).
- Irakasleen liburua, 1974tik aurrerakoak.
- Irakasle, ikasle, hutsegite eta hutsegite justifikatuen liburua, 1944 eta 1945.
- Gutuneria ofizialaren irteera liburua, 1944tik 1954ra artekoa.
- Langile numerarioek, bitartekoek eta mendekoek karguen jabetza hartzeari buruzko liburua, 1915eko abuztuaren 29tik 1950eko urtarrilaren 14ra artekoa.
- Merkataritzako Eskolako irakasleek, administrazioako langileek eta mendeko langileek karguen jabetza hartzeari buruzko liburua, 1950eko urtarrilaren 16tik 1981eko martxoaren 9ra artekoa.
- Kontularitzako eguneroko liburua, 1915eko irailaren 30etik 1926ko urriaren 31ra artekoa.
- Liburutegi inbentarioaren liburua, 1916ko ekainaren 17an izapidetua.

- Bulgarizatzeko sekzio mistoko matrikulen liburua, kobrantzak, 1947tik 1955era artekoak.
- Liburu nagusiak, 1915eko irailaren 30etik 1927ra artekoak.
- Gutunen (sarrerren) erregistro liburua, 1936tik 1942ra artekoa. Bada beste erregistro liburu bat, 1944tik 1956ra artekoa.
- Diru sarrerren erregistro liburua, 1946tik 1956ra artekoa.
- Eskolako mendeko langileen adierazpenen erregistro liburua, 1954.
- Matrikulen erregistro liburua, 1946tik 1948ra artekoa. Matrikulen erregistro liburu gehiago ere badaude; 1948tik 1949ra artekoa, 1949tik 1950era artekoa, 1950etik 1952ra artekoa, 1952tik 1954ra artekoa, 1961etik 1969ra artekoa eta 1969tik 1972ra artekoa.
- Matrikulen erregistro liburua (matrikulen kobrantzak, praktikak, eskola karneta, eskola kalifikazioen liburua), 1954tik 1956ra artekoa. Bada beste liburu bat, 1956tik 1960ra artekoa.
- Sarrera matrikulen erregistro liburua, 1966tik 1977ra artekoa.
- Ordainketen erregistro liburua, 1937tik 1942ra artekoa.
- Errebalidaren erregistro liburua, 1946tik 1956ra artekoa.
- Administrazio tituluen, kredentzialen eta abarren erregistro liburua, 1915etik 1948ra artekoa.
- Ikasturteen memoriak, 1915-1916tik 1955-1956ra artekoak.
- 1915-1916 eta 1921-1922 urte akademikoen eta 1922-1923 eta 1955-1956 urte akademikoen artean igarotako ikasturte bakoitzaren memoriak.
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduaren titulu ofiziala egiaztatzeke eskaeren memoria.
- Udalaren nominak, 1923tik 1942ra artekoak.
- Eskolen parteak, 1946tik 1951ra artekoak.
- Bulgarizatzeko sekzio mistoa, matrikulak, 1944-1945 ikasturtetik 1950-1951 ikasturtera, eta 1952-1953 ikasturtetik 1953-1954 ikasturtera.

### **3.2. Balorazioari, aukeraketari eta deuseztatzeari buruzko informazioa:**

Ez dira ebaluatu agiri serieak.

### **3.3. Sarrera berriak:**

Funts itxia da.

### **3.4. Antolamendu sistema:**

Ez dago sailkapen koadrorik.

## **4. Sarbide eta erabilera baldintzen atala**

### **4.1. Sarrera baldintzak:**

Agiri gehienetarako sarbidea librea da, aurretiaz kontsulta eskabidea eginda UPV/EHUko Artxibo Nagusiari.

### **4.2. Erreproduktzio baldintzak:**

Ikasketa eta ikerketa helburuetarako bakarrik dago baimenduta, aurretiaz eskabidea eginda.

#### **4.3. Materialaren hizkuntza:**

Gaztelania

#### **4.4. Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak:**

Oro har, kontserbazio egoera ona da.

#### **4.5. Deskribapen tresnak**

ISAD(G) fitxa, funts mailan.

### **7. Deskribapen kontrolerako atala**

#### **7.1. Artxibozainaren oharra:**

Miguel Ángel Santos Cresporen deskribapena.

#### **7.2. Arauak:**

ISAD (G): Norma internacional general de descripción archivística. 2. ed. Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Kulturako Estatu Idazkaritza, 2000).

ISAAR (CPF): Norma internacional sobre los registros de autoridad de archivos relativos a instituciones, personas y familias. 2. ed. Madril: Kultura Ministerioa, 2004.

Manual de descripción multinivel. [Salamanca]: Gaztela eta Leongo Junta. Hezkuntza eta Kultura Saila, 2000.

#### **7.3. Deskribapen data:**

2018ko martxoa.